



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO



Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ZURI GERTA DAKIZUKE

Ibilgailu Automobilak Konpontzeko Tailerrak



ALDIZKARI KONTSUMOBIDE

2012

ZK. 16



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

ZK. 16

Atal honetan, auzitegietara iritsi zen kasu baten berri emango dugu. Kasuak automobil bat konpontzeko aurrekonturik eta baimenik eza du ardatz (baimena esanbidez eman ez bazen ere, eman zela ulertzen da, demandatuak nola jardun zuen kontuan hartuta).

KASUAREN DESKRIBAPENA:

Tailer batek demandatuaren ibilgailuan egindako konponketa baten zati ordaindu gabea erreklamatu du.

Demandatuak adierazi duenez, ez dago konponketa egiteko baimenik, ez baitzuen aurrekontua onartu.

Tailerrak ibilgailu motordunak saltzen eta konpontzen ditu, eta demandatuaren autoa konpontzeko enkargua onartu zuen. Lan horren zenbatekoa 7.754 € zen. Demandatuak 4.650 €-ko zenbatekoa baino ez du ordaindu. Beraz, gainerakoa zor du.

Demandatuak ez du ordaindu nahi.



ALDIZKARI
KONTSUMOBIDE



kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

ZK. 16

Dioenez, konponketaren zenbatekoa 4500 edo 5.000 €-tik gorakoa bazen ibilgailua ez konpontzeko esan zien tailerreko langileei, baina haiek ez zioten jaramonik egin adierazitakoari. Bestalde, tailerretik behin baino gehiagotan eskatu zioten aurrekontua onar zezan, konponketa egiteko ala ez egiteko. Azkenean, tailerrak konponketa egin zuen, baina demandatuaren baimenik gabe. Horregatik, demandatuak ez zuen zenbateko osoa ordaindu nahi izan.

KASUAREN EBAZPENA:

Egia da ez dela aurrekonturik egin eta, beraz, indarrean dagoen legeria urratu egin dela, aurrekontuari uko egin izana zalantzarik ez uzteko moduan jaso behar baita (idatziz, adibidez). Gainera, logika ororen aurkakoa da ibilgailuaren balioa baino zenbateko handiagoa duen konponketa bat onartu dela ulertzea. Demandatuaren arabera, aurrekontua egin ez zenez eta konponketaren zenbatekoa 4.500 edo 5.000 €-tik gorakoa bazen ibilgailua ez

konpontzeko esan zuenez gero, bere aurkako erreklamazioak ez du aurrera egin behar. Hala ere, ezbeharra izan zuen ibilgailuaren jabearen jokaera kontuan hartuta, ez dirudi adierazpen hori egia denik. Bi arrazoi aipatuko ditugu.

Alde batetik, fakturaren arabera ibilgailua 2003ko martxoaren 11n





kontsumoBIDE

KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

ZK. 16

gordailutu zen tailerrean, eta ekainaren 2an eraman zen bertatik (hau da, ia 3 hilabetera). Hortaz, bistakoa da jabeak konponketa baimendu zuela. Osterantzean, aurrekontua egitea eskatuko zuen irmo eta behin betiko, edota, tailerraren pasibotasunaren aurrean, autoa eramango zuen lehenago.

Bestetik, demandatuak ibilgailua eraman eta erabili egin zuen konponketa egin ondoren, eta konponketaren zenbatekoaren zati bat ordaindu zuen. Era horretan, aurrekontua egiteari dagokionez egindako edozein arau-hauste zuzenduta geratu da, demandatuaren jokaerak baimena eman zuela erakusten baitu.

Hori dela-eta, tailerrari zor dion zenbatekoa (hau da, 3.104 €) eta legezko interesak ordaintzeko zigorra ezarri zaio demandatuari.

